



EBAZPENA, 2023ko otsailaren 23koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoaren eta Hezkuntzako ikuskarien kidegoaren funtzionarioen arteko 2022/2023ko lekualdatze lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen duena.

Hezkuntza sailburuak 2022ko urriaren 7an emandako Aginduaren –Administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoaren eta Hezkuntzako ikuskarien kidegoaren funtzionarioen arteko 2022/2023ko lekualdatze lehiaketa deitzen duenaren- hamaseigarren oinarrian ezarritakoaren arabera (2022ko urriaren 14an EHAA), postuen behin-behineko esleipena onartu behar da. Aipatutako kidegorako Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabiderik ez direla aurkeztu kontuan hartuta,

Horregatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Argitara ematea ez direla destinoen behin-behineko esleipenik egon Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzuko Ikuskarien eta Hezkuntza Ikuskarien Kidegoetako funtzionario irakasleen arteko 2022/2023eko lekualdatze-lehiaketan.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko epea irekitzea, 2023ko otsailaren 27tik martxoaren 3ra bitartean, bi barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa eta/edo uko egitea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein lekutan aurkeztu beharko da, eta, lehentasunez, Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Elektronikoko Orokorraren bidez.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 23an

**I ERANSKINA****BEHIN BEHINEKO DESTINOEN ADJUDIKAZIOA**

<u>NAN</u>	<u>ABIZENAK ETA IZENA</u>	<u>BEHIN BEHINEKO DESTINOA</u>
***0374**	Delgado Sola, Maria Aranzazu	HEZKUNTZA SAILA (PAMPLONA 1)
***6424**	Ruiz Lopez, Maria Teresa	ARABAKO IKUSKARITZA (VITORIA-GASTEIZ)
***5519**	Solabarrieta Badiola, Miren Jone	BIZKAIAKO IKUSKARITZA (BILBAO)